



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

**Andoaingo Udal Musika Eskolako
Antolaketa eta Funtzionamendu
Araudia**

Reglamento Municipal

**Reglamento de Organización y
Funcionamiento de la Escuela de
Música Municipal de Andoain**

Zioen azalpena

Euskal Autonomia Erkidegoko musika- eta dantza-eskolak arautzen dituen Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 21eko 64/2024 Dekretua indarrean sartzea nahitaez bete beharreko arau-esparru berria da, aurreko 289/1992 Dekretua ordezkatu eta indargabetzen duena. Eguneratze horren helburua arautu gabeko irakaskuntza horien antolaketa eta funtzionamendua egungo beharretara egokitzea da.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da Andoaingo Udal Musika Eskolak bere Antolakuntza eta Funtzionamendu Araudia egokitzea. Egokitzapen horri esker, dekretu horretan ezarritako lege-eskakizunak bete ahal izango dira, eta ikastetxeari tresna arauemaile eguneratu bat emango zaio, haren antolaketa-egitura, kudeaketa- eta partaidetza-organoak, araubide akademikoa eta administratiboa eta, oro har, funtzionamendu egokia ziurtatzen duten prozedurak arautzeko.

Dekretuak, halaber, ikasleen onarpenari eta matrikulari buruzko funtsezko alderdiak, ikasle bakoitzeko erreferentzia-maila bakar baten definizioa, aurrera egiteko irizpideak eta aplikatu daitezkeen epeak eta prozedurak arautzen ditu. AJAK elementu horiek barne hartu behar ditu, sarbide-berdintasuna, kudeaketaren gardentasuna eta eskura dauden baliabideen plangintza egokia bermatzeko.

Era berean, beharrezkoa da araudian gobernu-, kudeaketa- eta ordezkari-organismoak antolatzea, horietako bakoitzari eginkizun argiak eta mugatuak esleituz, eta hezkuntza-komunitateko kideen eskubideen eta betebeharren erregulazioa txertatuz. Parte hartzeko mekanismoen definizioak ere 64/2024 Dekretuan aurreikusitakora egokitu beharko du.

Azkenik, urtero Ikasturteko Kudeaketa Plana (IKP) eta egindako jardueren ebaluazio-memoria egiteko betebeharra jasotzen da. Ondorioz, Araudiak dokumentu horiek idazteko, onartzeko eta zabaltzeko prozedurak jaso behar ditu, barne-ebaluzioa eta

Exposición de motivos

La entrada en vigor del Decreto 64/2024, de 21 de mayo, del Gobierno Vasco, por el que se regulan las escuelas de música y danza de la Comunidad Autónoma de Euskadi, constituye un nuevo marco normativo de obligado cumplimiento que sustituye y deroga el anterior Decreto 289/1992. La finalidad de esta actualización es adecuar la organización y el funcionamiento de dichas enseñanzas no regladas a las necesidades actuales.

En este contexto, resulta necesario que la Escuela de Música Municipal de Andoain proceda a la adaptación de su Reglamento de Organización y Funcionamiento. Dicha adecuación permitirá dar cumplimiento a las exigencias legales establecidas en el citado Decreto y dotará al centro de un instrumento normativo actualizado que regule su estructura organizativa, sus órganos de gestión y participación, su régimen académico y administrativo y, en general, el conjunto de procedimientos que aseguran su correcto funcionamiento.

El Decreto también regula aspectos esenciales relativos a la admisión y matrícula del alumnado, la definición de un único nivel de referencia por estudiante, los criterios de progresión, así como los plazos y procedimientos aplicables. El ROF debe incorporar estos elementos con el fin de garantizar la igualdad de acceso, la transparencia en la gestión y la correcta planificación de los recursos disponibles.

Del mismo modo, se hace preciso ordenar en el Reglamento los órganos de gobierno, gestión y representación, atribuyendo a cada uno de ellos funciones claras y delimitadas, e incorporando la regulación de los derechos y deberes de los diferentes miembros de la comunidad educativa. La definición de los mecanismos de participación deberá también ajustarse a lo previsto en el Decreto 64/2024.

Finalmente, se introduce la obligación de elaborar anualmente un Plan de Gestión de Curso Escolar (PGCE) y una memoria evaluativa de las actividades realizadas. En consecuencia, el Reglamento debe contemplar los procedimientos para la redacción, aprobación y difusión de estos documentos,



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

<p>kontuak emateko ariketa bat ziurtatuz, Andoaingo Udal Musika Eskola etengabe hobetzen lagunduko duena.</p> <p>Horregatik guztiagatik, Antolamendu eta Jarduera Araudia onartzea ezinbesteko lege-betebeharra da, baina baita aukera estrategikoa ere Andoaingo Udal Musika Eskolak herriko kultura- eta hezkuntza-esparruan duen posizioa indartzeko. Indarrean sartzean, ikastetxeak 64/2024 Dekretura erabat egokitutako arau-esparrua izango du, segurtasun juridikoa, antolamendu-gardentasuna eta berezko dituen hezkuntza- eta gizarte-helburuak betetzeko oinarri sendoa emango duena.</p>	<p>asegurando un ejercicio de evaluación interna y de rendición de cuentas que contribuya a la mejora continua de la Escuela de Música Municipal de Andoain.</p> <p>Por todo lo expuesto, la aprobación del Reglamento de Organización y Funcionamiento se configura como una obligación legal ineludible, pero también como una oportunidad estratégica para reforzar la posición de la Escuela de Música Municipal de Andoain en el marco cultural y educativo de la localidad. Con su entrada en vigor, el centro contará con un marco normativo plenamente adaptado al Decreto 64/2024, que proporcionará seguridad jurídica, transparencia organizativa y una base sólida para el cumplimiento de los fines educativos y sociales que le son propios.</p>
<p style="text-align: center;">Atariko Titulua</p> <p>1. artikulua.- Andoaingo Udal Musika Eskola aitorten ofiziala duen Musika Ikastetxe ez-arautua da, antolamendu, ekonomia eta administrazioaren aldetik Andoaingo Udalaren mende dago eta pedagogikoki, ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan (IHP) ezarritakoa, eta gainerakoa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren indarreko arauak ezarritakoa, 2024ko ekainaren 12ko 64/2024 Dekretuan eta horri buruz zehaztu daitezkeen gainerako arauetan oinarrituta</p>	<p style="text-align: center;">Título Preliminar</p> <p>Artículo 1.- La Escuela Municipal de Música de Andoain es un Centro de Enseñanza Musical no reglada oficialmente reconocido, dependiente orgánicamente, económicamente y administrativamente del Ayuntamiento de Andoain y pedagógicamente de lo establecido en el Proyecto Educativo del Centro (PEC) y el resto por la norma vigente establecida por el del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, en base a lo establecido en el Decreto 64/2024 del 12 de junio de 2024 y demás normas que se puedan determinar en relación a ello.</p>
<p>2. artikulua.- Udal Musika Eskolaren funtsezko helburua bertako ikasleei musika-hezkuntza eskaintzea da, ikasle horiek haurrak izan edo helduak izan, horien adina kontuan hartu gabe, gizonen zein emakumeen premiei erantzuteko eta halaber, andoaindarren artean musikaren kultura sustatzea.</p>	<p>Artículo 2.- El objetivo fundamental de la Escuela Municipal de Música es ofertar un servicio de enseñanza musical a su alumnado, sean estos niños/as o mayores, sin tener en cuenta la edad, atendiendo a las necesidades tanto de hombres como de mujeres, y asimismo fomentar la cultura musical en la comunidad andoaindarra.</p>
<p>3. artikulua.- Eskaini beharreko ikasketen curriculumaz ez-arautuaren barruan garrantzi berezia emango zaio ikasleen prestakuntza praktikoari, nahiz eta hezkuntza teorikoaren eta praktikoaren arteko harreman egokia bilatzeko ahaleginak egingo diren.</p>	<p>Artículo 3.- En el currículum de los estudios no reglados a impartir se dará importancia a la preparación práctica del alumnado, aunque se tratará de establecer una relación adecuada entre la formación teórica y la práctica.</p>



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

<p>4. artikulua.- Udal Musika Eskolaren irakaskuntza-lanaren helburua ikasleek indibidualki ikas dezatela ahalbidetzea da, eta horrekin batera, taldean jarduteko duten gaitasuna sustatzea, eta horretarako, taldeak, orkestrak eta abar sor daitezela bultzatuko du, 64/2024 Dekretuan ezarritako maila bakoitzak dituen eskumenekin bat etorritz, eta halaber, udalerriko musika-elkarte desberdinekin koordinatuko ditu bere jarduerak, musika-programazio orokor bateratu bat prestatzeko helburuz. Horretarako, ikasleak eta taldeak koordinatzeaz gain, Udaleko Kultura eta Hezkuntza Lansaileko teknikari arduradunarekin batera, jarduera musikalak adostuko ditu eta aholkularitza ematen saiatuko da.</p>	<p>Artículo 4.- La labor docente de la Escuela Municipal de Música irá dirigida a posibilitar el aprendizaje individual del alumnado y a potenciar su capacidad de actuar en grupo, para lo cual la Escuela impulsará la creación de grupos, orquestas, etc., adecuándose a las competencias de cada nivel establecido en el Decreto 64/2024, y coordinará su actuación con la de los distintos colectivos musicales del municipio, con el fin de realizar una programación musical global conjunta. Para ello, además de coordinar a alumnos/as y grupos, junto con la/el técnico responsable del Departamento de Cultura y Educación del Ayuntamiento, acordará propuestas musicales y tratará de prestar asesoramiento.</p>
<p>5. artikulua.- Eskolak, bere esku dituen aukera, giza baliabide eta bitarteko materialen bitartez, irakaspenak ematen ahaleginduko da ahalik eta ikasketa-esparrurik eta instrumentu-esparrurik zabalena besarkatuz, betiere Zentroak dituen helburu eta plangintzarekin bat etorritz eta egun dagoen eskakizuna kontuan izanik, eta horretarako, ikasleen eta gurasoen esku beharrezko bitarteko guztiak jartzen ahaleginduko da eta instrumentu-esparru desberdinen artean egon litezkeen desorekak berdinduko dituen dibulgazio-lan bat bultzatuko du, eta halaber, zenbait gaitan «numerus clausus» batzuk finkatu ahal izango ditu, desoreka hori gehiegizkoa bada, Eskolak egoki funtziona dezan eta bere helburuak egoki bete ditzan. Era berean, Eskualdeko gainerako Udal Musika Eskolen plangintza ezagutu eta kontuan izango du.</p>	<p>Artículo 5.- La Escuela procurará, dentro de las posibilidades y recursos humanos y materiales de que disponga, impartir enseñanzas en campos de estudio e instrumentales los más amplios posibles, acordes con la planificación y objetivos del Centro y atendiendo a la demanda existente, para lo cual procurará poner los medios necesarios a disposición del alumnado y de los padres y madres e impulsará una labor de divulgación que compense los desequilibrios que puedan existir entre los diversos campos instrumentales, y podrá, incluso, establecer «numerus clausus» en algunas materias, si el desequilibrio resultará excesivo, para el buen funcionamiento y los objetivos de la Escuela. Así mismo, conocerá y tendrá en cuenta la planificación de las demás Escuelas Municipales de Música de la Comarca.</p>
<p>6. artikulua.- Hizkuntza irizpideak Euskara izango da Musika Eskolaren ohiko hizkuntza, eta horretarako Andoaingo Udalaren Hizkuntza Irizpideei jarraituko zaie. Euskara zerbitzu- nahiz lan-hizkuntza gisa normaltasunez eta modu orokorrean erabiliko da (Hizkuntza irizpideen 3.1. eta 3.2. puntuak). Paisaia linguistiko osoa gutxienez euskaraz egongo da (Hizkuntza irizpideen 3.1.1. puntua). Haur eta gazteekin euskara hutsez lan egingo da, bai ahoz eta bai idatziz. Helduen taldeetako izen-emateetan erabiltzaileei galdetuko zaie ea saioak euskaraz jarraitzeko gai oten diren, eta euskaldunen ehunekoaren arabera antolatuko dira saioak (Hizkuntza irizpideen 3.1.2.3. puntua). Edonola ere,</p>	<p>Artículo 6.- Criterios lingüísticos El euskera será el idioma habitual de la Escuela de Música, y para ello se seguirán los Criterios Lingüísticos del Ayuntamiento de Andoain. El uso del euskera como lengua de servicio y de trabajo se hará con normalidad y de forma general (puntos 3.1 y 3.2 de los criterios lingüísticos). Todo el paisaje lingüístico estará al menos en euskera (punto 3.1.1 de los criterios lingüísticos). Se trabajará con niños y jóvenes exclusivamente en euskera, tanto oralmente como por escrito. En las inscripciones a grupos de adultos se preguntará a las personas usuarias si pueden seguir las sesiones en euskera, y se organizarán las sesiones en función del porcentaje de euskaldunes. En todo</p>



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udala Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

Musika Eskolak euskararen normalizazioan ekarpena egiteko konpromisoa hartuko du.	caso, la Escuela de Música se comprometerá a contribuir a la normalización del euskera.
<p>7. artikulua. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna</p> <p>Andoaingo Musika Eskolak bat egiten du Andoaingo Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako III. Planaren (2020 – 2023) printzipio eta helburuekin, eta genero-ikuspegia txertatzen du jardura guztietan, 3/2007 Lege Organikoaren eta Euskal Autonomia Erkidegoko 4/2005 Legearen arabera.</p> <p>Ikasleen eta hezkuntza-komunitatearen sarbidean, parte-hartzean eta garapenean emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasun eraginkorra bermatuko du ikastetxeak, diskriminaziorik gabeko hezkuntza-ingurunea sustatuz.</p> <p>Halaber, hizkuntza eta irudi inklusiboak erabiltzea, ikastetxeko organoetan emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izatea eta hezkuntza- eta antolaketa-programazioan berdintasun-ikuspegia txertatzea sustatuko da, aipatutako udal-planaren ildo estrategikoekin bat etorritz.</p>	<p>Artículo 7. Igualdad de Mujeres y Hombres</p> <p>La Escuela de Música de Andoain se adhiere a los principios y objetivos del III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres del Ayuntamiento de Andoain (2020–2023), integrando la perspectiva de género en todas sus actuaciones, conforme a la Ley Orgánica 3/2007, la Ley 4/2005 del País Vasco.</p> <p>El centro garantizará la igualdad real y efectiva entre mujeres y hombres en el acceso, participación y desarrollo del alumnado y de la comunidad educativa, fomentando un entorno educativo libre de discriminaciones.</p> <p>Asimismo, se promoverá el uso de lenguaje e imagen inclusivos, la presencia equilibrada de mujeres y hombres en los órganos del centro, y la incorporación de la perspectiva de igualdad en la programación educativa y organizativa, en coherencia con las líneas estratégicas del citado Plan municipal.</p>

<p style="text-align: center;">I Titulua Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua</p> <p>8. artikulua.- IHPak Eskolaren nortasuna zein izango den zehaztuko du eta, halaber, erdietsi beharreko helburuak finkatuko ditu, Zentroak egoki funtziona dezan. Gainera, proiektu honek Hezkuntza Komunitateko kide guztiari eragingo die eta guztiek bete beharko dute, honako helburua lortzeari begira: Musika-hezkuntza praktikoa bat eskaintzea, edozein adinetako musikazaleei zuzendua, gaitasun eta zaletasun berezia erakusten dutenak ikasketa profesionaletara bideratzeko eta prestatzeko helburuari uko egin gabe eta emakumeen eta gizonen beharrei erantzunez.</p> <p style="text-align: center;">1. Kapitula Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren helburuak</p> <p>9. artikulua.- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuaren (IHP) helburuak honako hauek dira: 1. Musika-irakaskuntza ez-arautua xede praktikoa</p>	<p style="text-align: center;">Título I Proyecto Educativo de Centro</p> <p>Artículo 8.- El PEC definirá la identidad de la Escuela y proporcionará los objetivos a conseguir, para obtener un buen funcionamiento del Centro. Además, este proyecto vinculará y comprometerá a todos los miembros de la Comunidad Educativa con la siguiente finalidad: Ofrecer una formación práctica en música dirigida a aficionados/as de cualquier edad sin perjuicio de su función de orientación y preparación para los estudios profesionales de quienes demuestren una especial vocación y aptitud, y atendiendo a las necesidades de mujeres y hombres.</p> <p style="text-align: center;">Capítulo 1 Objetivos del Proyecto Educativo de Centro</p> <p>Artículo 9.- Son objetivos del Proyecto Educativo de Centro (PEC) los siguientes:</p>
---	--

ESKUD8458c76-79e9-47ad-acc0-522a947c8ae2



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

<p>batekin eskaintzea, musika talde baten barruan egiteko helburu nagusiarekin, udalerrian dagoen gizarte-eskakizun bati erantzunez, adinari jaramonik egin gabe (lau urtetik aurrera eta mugarik gabe), gizonen eta emakumeen beharrak kontuan hartuta</p> <ol style="list-style-type: none"> Ulermen orokor hobea eta ikasleen interes, dedikazio eta erritmora egokitua erdiesteko ezinbestekoak diren alderdi teorikoak eskaintzea, irakasleen artean etengabe hobetzeko eta eguneratzeko gogoia sustatuz. Musika mota desberdinak eskaintzea: klasikoa, antzinakoa, modernoa, herri-musika... eta horrela, estilo desberdinak entzuteko gogoia piztea, bai Eskolako ikasleen artean eta bai Andoaingo herritarren artean ere. Eskolako talde desberdinek eta udalerrian ditugun beste batzuek elkarrekin musika-jarduerak egin ditzatela sustatzea eta horiek koordinatzea, eta beste Eskola batzuekin trukeak egitea. Beren gaitasun eta interesagatik Musikaren Irakaskuntza Arautuetan sartu nahi duten ikasleak orientatzea eta prestatzea. 	<ol style="list-style-type: none"> Ofertar enseñanza musical no reglada y con carácter práctico, con el fin primordial de realizar música en grupo, atendiendo a una demanda social en el municipio, sin consideración de edad (desde los cuatro años y sin límite), teniendo en cuenta las necesidades de hombres y mujeres. Impartir los aspectos teóricos imprescindibles para una mejor comprensión global y adecuado a los intereses, dedicación y ritmo del alumnado, fomentando un permanente perfeccionamiento y actualización del profesorado. Ofertar las distintas gamas de música: clásica, antigua, moderna, popular, ... para así, potenciar el gusto por la audición de los distintos estilos, tanto en el alumnado de la Escuela, como en la población de Andoain. Fomentar y coordinar las actividades musicales entre distintos grupos de la Escuela y otros existentes en el municipio, así como el intercambio con otras Escuelas. Orientar y preparar a aquellos alumnos/as que por su capacidad e interés quieran acceder a las Enseñanzas Regladas de Música.
<p style="text-align: center;">2. Kapitulara <i>Irakaskuntzen antolamendua</i></p> <p>10. artikulua.- Andoaingo Udal Musika Eskolako irakaskuntza lau mailatan banatzen da, 64/2024 Dekretuaren 44. artikuluan aurreikusten den bezala. Maila horiek honako hauek dira:</p> <p style="padding-left: 20px;">- 1. maila edo kontaktuzko maila, 4-7 urteko ikasleentzat, gaitasun-mailaren mugarik gabe. Haurraren nortasunaren garapen harmonikoa bultzatuko du, irakaslearekiko eta gainerako ikaskideekiko elkarreraginaren bidez, gorputz-jardueraren eta zentzumenen bidez. Bere buruaren kontzientzia hartzen du barneko harmonian dagoen izaki gisa, eta gainerako pertsonekin eta bere inguruarekin. Pixkanaka, bost urtetik aurrera, musika eta mugimenduko jarduera espezifikagoekin harremanetan jarriko da, 2. mailara sartzean bere gustuekin eta edukierarekin ondoen egokitzen den espezialitatean hasteko aukera har dezan.</p>	<p style="text-align: center;">Capítulo 2 <i>Ordenación de las enseñanzas</i></p> <p>Artículo 10.- La enseñanza en la Escuela Municipal de Música de Andoain se divide en cuatro niveles, tal y como se contempla en el artículo 44 del decreto 64/2024. Estos niveles son los siguientes:</p> <p style="padding-left: 20px;">- Nivel 1 o de contacto, para alumnado de 4 a 7 años, sin límite de nivel de competencia. Potenciará el desarrollo armónico de la personalidad del niño y la niña a través de la interacción con la persona docente y el resto de las y los compañeros por medio de la actividad corporal y de los sentidos. Adquirirá conciencia de sí mismo como un ser en armonía interior y con las demás personas y lo que le rodea. Progresivamente, a partir de los cinco años, irá tomando contacto con actividades más específicas de la música y del movimiento de forma que pueda adoptar la opción de iniciación a la especialidad más acorde con sus gustos y capacidad al acceder al Nivel 2</p>

ESKUD8458c76-79e9-47ad-acc0-522a947c8ae2



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoaín

- **2. maila edo espezialitatearen hastapeneko.** 8 urtetik aurrera eta adin-mugarik gabe sartzea eskatzen duten ikasleentzat. Musikaren praktika artistikoa beste adierazpen-elementu bat bezala kontzeptualizatuko du, eta bere nortasuna eta sentsibilitatea garatzeko elementu gisa. Alderdi tekniko hutsa irakasleak bakarrik sustatuko du, tresna gisa, ikasleen adierazkortasuna hobetzeko beharrezko elementu gisa.

Lortu beharreko gaitasuna bere espezialitatean interpretazio-talde batean hasteko behar dena izango da. Ez da adin-mugarik egongo maila horretan hasteko.

Ikasle guztiak talde-praktikan hasiko dira, tutoreak proposatuta, eskatutako musika-mailaren arabera.

- **3. maila edo espezialitatea finkatzea.** Aldez aurreko ezagutzak izanik, musikaren praktika artistikoan sakondu nahi duen edonori zuzendua Instrumentu-interpretazioan edo kantuan lortu beharreko gaitasuna eskolako taldeetan parte hartzeko beharrezkoa dena izango da, multzoaren kalitateari lagunduko dioten segurtasun- eta menderatze-balioak emanaz. Era berean, gai izango da banakako jardueretan eta hainbat mailako interpretazio-taldeetan parte hartzeko, eskuratutako ezagupenen eta prestakuntza-maila honen arabera.

- **4. maila edo espezialitate-hobekuntza.** Gaitasun-muga bakarra interesak, dedikazioak eta kapazitateak markatzen dutena da. Gaitasun hori, oro har, eskolako interpretazio-taldeetan parte hartuz sustatuko da.

II. eta III. mailetan, irakasgai hauek bereiziko dira:

- Irakasgai nagusia, espezialitate guztiak hartuko dituen (abesbatza barne, talde horretan soilik parte hartzen duten ikasleen kasuan). II. eta III. mailako ikasle guztiak nahitaez egin beharko dute irakasgai nagusiren bat Eskolako ikasle izateko.
- Instrumentu-multzoak. Musika-eskolako prestakuntzaren lehentasuna talde-praktika da. Praktika horretan, irakasleak

- **Nivel 2 o de iniciación de especialidad.** Destinado al alumnado que solicite el ingreso a partir de 8 años y sin límite de edad. Conceptualizará la práctica artística de la música como un elemento expresivo más y de desarrollo de su propia personalidad y sensibilidad. El aspecto puramente técnico, lo potenciará la persona docente solo con carácter instrumental, como elemento necesario para mejorar la expresividad del alumnado.

La competencia a alcanzar será la precisa para iniciarse en su especialidad en uno de los grupos de interpretación. No habrá limitación de edad para iniciarse en este nivel.

Todo el alumnado se iniciará en la práctica grupal a propuesta de su tutor/a de acuerdo al nivel musical requerido.

- **Nivel 3 o de afianzamiento de especialidad.** Dirigido a cualquier persona que, teniendo conocimientos previos, desea profundizar en la práctica artística de la música. La competencia a alcanzar en la interpretación instrumental, o de canto, será la precisa para participar en los conjuntos de la escuela, aportando valores de seguridad y dominio que contribuyan a la calidad del conjunto. Igualmente, será competente para participar en actividades de carácter individual y en grupos de interpretación de diferentes formatos de nivel acorde a los conocimientos adquiridos y a este nivel formativo.

- **Nivel 4 o perfeccionamiento de especialidad.** No tiene más límite de competencia que la que el interés, dedicación y capacidad marquen. Esta competencia se potenciará, con carácter general, a través de la participación en los grupos de interpretación de la escuela.

En los Niveles II y III se distinguirán las siguientes asignaturas:

- Asignatura Principal, que comprenderán todas las especialidades (incluido el coro en los casos del alumnado que solamente participe en dicha agrupación). Todo el alumnado de nivel II y III deberá realizar obligatoriamente alguna asignatura principal para ser alumna/o de la Escuela.
- Conjuntos Instrumentales. La prioridad de



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

<p>instrumentuaren bigarren urtetik aurrera hasiko dira, betiere tutorearen irizpidearen arabera.</p> <p>c) Musika-hizkuntza. 2. mailan baino ez da ikasten. Ikasleen musika-prestakuntza osatzeko ematen da. Eskolak irakasgai horiek sustatzeko neurriak hartuko ditu, ikasleen prestakuntza integralerako egokitzat jotzen baititu.</p>	<p>la formación en la escuela de música es la práctica grupal, en la cual se iniciará el alumnado a partir del segundo año de instrumento, siempre a criterio del tutor/a.</p> <p>c) Lenguaje Musical. Solamente se cursa en el nivel 2. Se imparte para completar la formación musical del alumnado. La Escuela, realizará medidas de fomento de estas asignaturas ya que las considera adecuadas para una formación integral del alumnado.</p>
<p>Ikasle indartua: Ikaslearen gaitasuna, borondatea eta saiakuntza kontuan izanik bere aurrerapena indartu behar baldin bada erregimen arautu batean sartu ahal izateko, Irakaskuntza Elementalak edo ikasketa profesionaletan edo musika-graduan sarrera-probarako eskatzen diren ezagupenak bermatzeko beharrezkoa den heziketa eskainiko zaio.</p> <p>Kasu horretan, matrikularekin batera, musika-ikasketa arautuak hasteko borondatea agertzen duen konpromiso-agiri bat bete beharko du.</p>	<p>Alumnado reforzado: Si surge el supuesto de que por las cualidades, interés y aprovechamiento del alumnado se deba intensificar su progreso con vistas a su incorporación a un régimen reglado, se le ofrecerá la formación precisa para garantizarle los conocimientos exigidos para una prueba de aptitud de las Enseñanzas Elementales o de acceso a las Enseñanzas Profesionales o de Grado de Música.</p> <p>En ese caso, deberá de cumplimentar junto con la matrícula, un escrito de compromiso de su intencionalidad de iniciar estudios musicales reglados.</p>
<p style="text-align: center;">2. Kapitula <i>Ikasturteko Kudeaketa Plana</i></p> <p>11. artikulua.- Andoaingo Musika Eskolak, Udalaren eta Eusko Jaurlaritzaren lege-esparruak kontuan izanik, Ikasturteko Kudeaketa Plana (IKP) egingo du, eta bertan, eskolaren helburuak, jarduerak, baliabideak eta ebaluaziorako bitartekoak adieraziko dira argi eta garbi, indarrean dauden araudietan ezarritakoa Andoaingo musika-egoeraren ezaugarrietara egokituz.</p>	<p style="text-align: center;">Capítulo 2 <i>Plan de Gestión de Curso Escolar</i></p> <p>Artículo 11.- La Escuela de Música de Andoain, teniendo en cuenta los marcos legales del Ayuntamiento y del Gobierno Vasco, realizará el Plan de Gestión de Curso Escolar (PGCE) de la escuela, donde se señalarán adecuada y claramente los objetivos, las actividades, los recursos y medios de evaluación propios de la escuela, adecuando lo establecido en las normativas en vigor a las características de la situación musical de Andoain.</p>
<p>12. artikulua.- ZUPak bi jarduera programa izango ditu:</p> <p>1. Irakaskuntza-jardueren programa: Irakaskuntza-lanarekin zuzenean loturik dauden jarduerak guztiak sartzen dira Irakaskuntza Jardueren Programaren barruan: hezkuntza-programak, ratioak, talde kopurua eta epeak, eta abar. Horretarako, Irakaskuntza Espezializatuen zuzendaritzak emandako aholkuak hartuko dira erreferentzia modura, eta gero, eskolaren ezaugarrietara eta Udalak ezarritako</p>	<p>Artículo 12.- El PGCE constará de dos programas de actividades:</p> <p>1. Programa de actividades docentes: El programa de actividades docentes comprende todas las actividades vinculadas directamente con la labor docente: programas educativos, ratios, número de grupos y plazos, etc. Para ello, se tomarán como referencia los consejos emitidos por la dirección de Enseñanzas Especializadas, adecuándolos después a las características de la escuela y a los criterios establecidos por el</p>



Andoaingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoaingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

<p>irizpideetara egokituko dira.</p> <p>2. Musika-jardueren eta jarduera osagarrien programa: Musika Jarduera Osagarrien Programaren barruan irakaskuntza-planean gauzatu behar duen musika-jarduera guztiak sartuko lirateke. Entzunaldiak eskaini eta horiekin gozatzea, musika-taldeen emanaldiak antolatzea, kontzertuetara entzule gisa joatea, beste zentro batzuekin trukeak egitea, udalerriko beste talde batzuekin lankidetzan aritzea eta koordinazioa bultzatzea. Plan horretan talde bakoitzaren jarduera kopurua edo musika maila eta horiek egingo diren egunak adierazi beharko dira zehaztasunez.</p>	<p>Ayuntamiento.</p> <p>2. Programa de actividades musicales y complementarias: El Programa de actividades musicales complementarias comprende el conjunto de la actividad musical en el que se debe plasmar el plan docente. Ofrecer y disfrutar de audiciones, actuaciones de los grupos musicales, acudir como oyentes a conciertos, intercambios con otros centros, coordinación y colaboración con otros grupos musicales del municipio.... En este plan se deberán recoger con exactitud tanto la cantidad de actuaciones de cada grupo o nivel musical como las fechas en las que tendrán lugar.</p>
<p>13. artikulua.- IKPa Eskola Kontseiluan aurkeztuko da, horrek, ikastetxearen antolamenduaren arabera dagokion moduan, balioztatu dezan.</p>	<p>Artículo 13.- El PGCE se presentará en el Consejo Escolar,-para que ésta, tal y como corresponde según la organización del centro, lo valide.</p>
<p style="text-align: center;">II Titulua Zentroaren Antolamendua</p> <p style="text-align: center;">1. Kapituluak Organoak eta funtzioak</p> <p>14. artikulua.- Zentroaren kudeaketarako eta partaidetzarako organoak dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kudeaketa-organoak: <ul style="list-style-type: none"> • Lehendakaria. • Zuzendaritza taldea. ➤ Partaidetza-organoak: <ul style="list-style-type: none"> • Eskola Kontseilua. • Irakasleen klaustroa. • Gurasoen Batzarra. • Ikasleen Batzarra. 	<p style="text-align: center;">Título II Organización del Centro</p> <p style="text-align: center;">Capítulo 1 Órganos y funciones</p> <p>Artículo 14.- Son los órganos de gestión y participación del centro:</p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Órganos de gestión: <ul style="list-style-type: none"> • Presidente/a. • Equipo directivo ➤ Órganos de participación: <ul style="list-style-type: none"> • Consejo Escolar. • Claustro de profesorado. • Asamblea de padres y madres. • Asamblea de alumnado.
<p>15. artikulua.- Udalaren ordezkari bat izango da Eskolako Lehendakaria eta berak jakinaraziko dizkie Udalbatzaren funtsezko irizpideak Zentroko gobernu-organoei. Halaber, IKPa azalduko dio dagokion udal organoari.</p>	<p>Artículo 15.- El/La Presidente/a de la Escuela es la persona representante municipal y transmitirá las directrices fundamentales de la Corporación hacia los órganos de gobierno del Centro. Asimismo, dará cuenta al órgano municipal correspondiente del PGCE.</p>
<p>16. artikulua.-</p>	<p>Artículo 16.-</p>



Andoain Udalak

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoain Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

<p>Lehendakariaren eginkizunak honakoak izango dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Eskola Kontseiluaren bilkuretarako deia egitea eta horiek zuzentzea. b) Musika Eskolaren ordezkari ofiziala egitea. c) Musika Eskolari dagozkion gutun eta agiriak izenpetzea. d) Eskola Kontseiluaren proposamenak dagokion Batzorde Informatzaileari edo dagozkien gainerako udal organoei jakinaraztea. e) Zuzendaritzarako hautagaien Kudeaketa-proiektuak aurkeztu ahal izateko kontuan izan beharreko alderdiak eta bete beharreko obligazioak finkatzea. f) Onetsitako planen izapideak berrikustea. g) Premiazko egoeretan, eta Alkateak Batzorde Irizpenemaileko Lehendakariaren esku utzitako eskumenak kontuan izanik, beharrezkoak diren ebazpenak ematea. 	<p>Son funciones de el/la Presidente/a:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Convocar y presidir las sesiones del Consejo Escolar. b) Ostentar la representación oficial de la Escuela de Música. c) Firmar escritos y documentos correspondientes a la Escuela de Música. d) Dar cuenta de las propuestas del Consejo Escolar a la Comisión Informativa correspondiente–o al resto de los órganos municipales correspondientes. e) Establecer las líneas a considerar y obligaciones a cumplir para poder presentar los proyectos de gestión de los/las candidatos/as a la dirección. f) Revisar la tramitación de los planes aprobados. g) En situaciones de urgencia, y teniendo en cuenta las competencias delegadas por el Alcalde en el/la Presidente/a de la Comisión Informativa, adoptar las resoluciones necesarias.
<p>17. artikulua.- Alkatea edo honek eskuduntutako Zinegotzia izango da Musika Eskolako Eskola Kontseiluko Lehendakaria, udalbatzaren agintaldiak irauten duen bitartean.</p>	<p>Artículo 17.- El Alcalde o alcaldesa o el/la Concejales en quien delegue será el/la Presidente/a del Consejo Escolar de la Escuela de Música mientras que dure el mandato corporativo.</p>
<p>18. artikulua.- Musika Eskolako Zuzendariak emango du Musika Eskolako funtzionamenduaren berri, betiere Hezkuntza eta Kulturako arduradunaren ikuskaritza eta zuzendaritzapean.</p>	<p>Artículo 18.- El/la Director/a de la Escuela de Música es quien dará cuenta del funcionamiento de la Escuela de Música siempre bajo la supervisión y dirección de la persona responsable del área de Cultura y Educación.</p>
<p>19. artikulua.- Zuzendaritza taldea lanpostu hauek osatuko dute, 64/2024 dekretuaren 69.artikuluaren dion bezala:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Musika Eskolako zuzendaria. b) Ikasketa burua. c) Idazkaria <p>Ahal den neurrian, emakumeen eta gizonen presentzia orekatua izango du.</p>	<p>Artículo 19.- El equipo directivo está integrado por los siguientes puestos, tal y como se indica en el art.69 del decreto 64/2024:</p> <ul style="list-style-type: none"> a) Director/a de la Escuela de Música. b) Jefe/a de Estudios c) Secretario/a <p>En la medida de lo posible, contará con una presencia equilibrada de mujeres y hombres.</p>
<p>20. artikulua.- Zuzendariaren ardura da Zentroaren jardura-plan guztien zuzendaritza eta koordinazio orokorra egitea, eta horretarako, ondorengo eginkizunak eman zaizkio:</p>	<p>Artículo 20.- El/la directora/a tiene asignada la dirección y coordinación general de cada uno de los planes de actuación del Centro, para lo cual tiene atribuidas las</p>



Andoingo Udala

HEZKUNTZA ETA KULTURA

Kodea:
2025ABO10003

Udal Araudia

Andoingo Udal Musika Eskolako Antolaketa eta Funtzionamendu Araudia

Reglamento Municipal

Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela de Música Municipal de Andoain

- a) Hezkuntza eta Kulturako lansailaren aurrean solaskide izatea sortzen diren proiektu, premia eta arazoen inguruan.
- b) Udalak onetsitako IKP gauzatzeaz arduratzea.
- c) Klaustroak Irakaskuntza Jardueren Programa egin dezala bultzatzea, Klaustroko kide bakoitzak horren prestakuntzan dituen eginkizunak eta erantzukizunak egoki banatzea eta horiek zuzentzea.
- d) Musika-jarduera osagarrien programa egin dadila bultzatzea eta horren exekuzioa zuzentzea, Klaustroko kideen artean lan-banaketa egokia eginez, bereziki taldeen jardueri eta entseguetarako dagokienez, Zentroaren gainerako programazio orokorrarekin bat etorritik eta Udaleko kultura jardueren programarekin koordinatuz, udalerrian musika-jardueren programazio bateratu bat egin dadila ahaleginduz.
- e) Zentroari atxikita dauden langile guztien koordinatzailea izatea.
- f) IKP oinarritzat harturik, irakasleen lan-egutegia proposatzea, Langileria, Antolakuntza eta Barne Eraentzako gaitan eskuduna den Batzordeari helaraziko dio.
- g) Zentroan irakasleek presentziako eta ez-presentziako ordu osagarrietan (eskola barrukoak nahiz eskolaz kanpokoak) egindako lanen memoria bat prestatzea urtero, eta dagokion Batzorde Irizpenemailean aurkeztea.
- h) Zentroko langileen baimen-eskaerak jaso eta Eskola Kontseiluko Lehendakariari helaraztea.
- i) Irakasle berriak aukeratzeko eta ordezkapenak egiteko prozesuetan parte hartzea.
- j) Ikasleen matriculazioaren eta Hezkuntza eta Kultura Lansailak horretarako egin behar dituen lanen jarraipena egitea.
